



Gasteiz, 2009ko apirilaren 4a.

## OIHANE PEREAK JANTZI DU TXAPELA ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETAN

**Oihane Perea aguraindarrak 609,5 eskuratu ditu eta Asier Otamendik 588punturekin lortu du bigarren postua. Bi hauek arituko dira udazkenean hasiko den Eukal Herriko Txapelketa Nagusian.**

Arratsaldeko bostetarako Printzipal Antzokia jendez lepo zegoen. Pankartak nonahi, eta giroa gori. Lehia parekatua aurreikusten zen baina sorpresak ere izan du lekua: aurten inoiz baino arabar gehiagok jarraitu dute txapelketa kanporaketatik finalera arte. Idoia Beitiaren agindupean aritu ziren hurrenez hurren Ricardo Gonzalez de Durana, Asier OTamendi, Oihane Perea, Iñaki Viñaspre, Manex Agirre eta Juan Mari Juaristi. Saio borobila burutu zuten guztiek, inoiz baino freskotasan handiagoarekin.

Finalak bi fase izan zituen. Lehendabizikoan zortziko handian, zortziko txikian eta hamarreko txikian hiruna bertso ofiziotan bota behar izan zituzten. Bakarkako ariketa bestalde, puntuari erantzuna eta gaiari bina bertso kantatzea izan zen. Buruz burukoan seiko motzean eta gaiari hiru bertso abestea zuten eginbarra.

Zortziko handian Oihane Perea eta Iñaki Viñaspre bikote baten azalean jarri zituzten. Ume baten esperoan bost izango zituztela esan berri zien medikuak. Preak honela ekin zion: <<baina bost ume ta bi bular, hori posible ote da?/norabaitera joan beharko dugu donante bat eskatzera>>. Viñasprek berriz honela erantzun zion: <<argi esango dizut Oihane zuk ulertzeko bezela/gaurtik aurrera etxe honetan sei ume izango garela>>. Rikardo eta Asier bi arrantzale jubilatu berriren azalean jarri zituzten eta Manex eta Juanmari ospitaleko hurrei irri bat atera asmoz joandako pailazoetan.

Zortziko txikian saio polita osatu zuten Asier eta Oihanek. Asier Oihaneren eskulturako ikaslea zen eta irakaslearen erakusketa bat ikusten ari zenean bere lan bat aurkitu zuen. Juan Mari eta Rikardo hondartzara elkarrekin joandako bi lagun bilakatu ziren eta, azkenik, Iñaki eta Manex, aita semeen paperean jarri zituzten. Manex semea, tatuaje batekin etxeratu berria zen. Hona Iñakiren aurreneko bertsoa: "Gogorra da bai baina hau ez dugu drama/Ume txiki hau hezitzen hartu dugun lana/damutu behar zaizu Ai manex laztana/Ipurdian pailazo bat egin izana". Manexen erantzuna ordea, tamainakoa izan zen: "Hiru bronka boteak gaur dizkit segido/ tatuai kenzeko behin eta berriro/ Zuk esan mekauendios bolumena igo/Nik logikoki ez dizut kasurik egingo".

Puntuari erantzunean bertsozaleari eskainitako ale dotoreak josi zituen aurtengo txapeldunak:

BERTSOAREN MUNDUAN  
SARTZEN GARENEAN  
Hainbeste jende dugu  
Gure oroimenean  
Gaur ia zazpirehun  
Igota trenean  
Mila izango gara  
Etorkizunean

GAIJARTZAILE, EPAILE  
ETA BERTSOLARI  
Eta zenbat entzule  
Hor aurrean adi  
Bertso eskolara etorri  
Ez ibili nagi  
Ta bertso gehio eman  
Etorkizunari

Txapeldunordea fin ibili zen hamarreko txikian Manex Agirre aramaioarrarekin ofizioa txukun osatuz. Gaiak hala zioen, Asier ejerzitorea derrigortuta joan zen, eta Manex semeak borondatez ejerzitoan izena eman nahi duela adierazi zion.

ASIER  
Inbidia eman nizun  
Gainera egitan  
Ezkutatzeko asmoa  
Izan dut sarritan  
Ze gaizki pasa nuen  
Garai aspalditan  
Hori ikusiz disdira  
Daukazu begitan  
Jantzi zenezakeen  
Baina inauteritan

MANEX  
JA JA inauteritan  
Ba nik ez dut uste  
Etxean pasa ditut  
Hamaikatxo urte  
Diodana serio  
Hartu behar zenuke  
Fusila ta bandera  
Musukatzean truke  
Zu bezela gizon bat  
Izan nahiko nuke

ASIER  
Izan zaitez ba gizon  
Har zazu tamaina  
Eta etxetik urrun  
Zoaz alajaina  
Igal afganistanen

Zuk egin azaña  
Jarri trajea eta  
Esan bibaespaña  
Baina oroitu etxean  
Ni naiz kapitaina

MANEX

Hau kapitain pilotu  
Ohorez bustia  
Bere menpe daukana  
Gaur etxe guztia  
Militarra izan nahi dut  
Dut erabakia  
Sobran daude hainbeste  
Broma ta aitzakia  
Gainera ondo datorkit  
Kolore kakia

Bakarkako lana erregular joan zen. Denek utzi zuten ale gogoangarriren bat, baina bigarren fasera ihes egiteko txartela bik soilik lortu zuten: Asier Otamendi eta Oihane Pereak.

Bigarren fasean beraz, seiko motzean aritu ziren hamabost urteko bi gazteren azaletik. Elkarri askotan begiratu baina sekula hitz egin gabeak zirela eta, Oihane Asierri hitzegitera hurbildu zitzaion. Saio umoretsu eta bizia egin zuten biek. Lehia estua zegoen eta bakarkakoan erabaki zen txapelduna. Gaiak hala zioen: Egunkariko notizia hori behin eta berriro irakurri duzu. Oraindik ez duzu guztiz sinetsi. Otamendik egindako ustekabeko potoak amaierako puntuazioan eragin zion. Hala eta guztiz ere, maisutasuna erakutsiz Iruña Veleiako aurkikuntzaren pare jarri zuen arabako txapelaren aurkikuntza berria. Oihane Pereak aldiz, emakumearen zapalkuntza izan zuen aldarri:

Martxoak 28,  
Ta egunkarian barrena  
Titular triste bat dago  
Guztiz hunkitu nauena  
Norbaitek gaur aurkitu du  
Bere bidearen azkena  
Emakume izatearren  
Hori da gure kondena  
Bakarren batek barruan  
Eduki arren problema  
Guztiak sentitu ditut  
Mina, amorrua ta pena

Egunero gertatzen da  
Holako hainbat istori  
Gizentasunak ez dauka  
Antza hainbat kategori  
Behin eta berriro gara  
Zulo berean erori  
Eta gure askatasuna  
Galtzear edo galzori  
Genero indarkeria  
Bakar bakarrik da hori  
Harropuzkeri galanta

Maitasunaren hilobi.

Ta gasteizen gertatu da  
Hemen bertan halafede  
Batzuek pentsatzen dute  
Direla etxeko errege  
Eta alper alperrik dira  
Polizia eta lege  
Bilakatu nahi gaituzte  
Haien panpin ta titere  
Aholkutxo bat badaukat  
Ta egin nahi nuke nere  
Ez dezagu permititu  
Hitz zakar bat bera ere

Honenbestez sustraiak errotuz kimuak loratu dira. Arabako bertsolari txapelketak datorren urtean ere izango du zer esan eta emana.

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA